

DIRU-ITURRIAK

Gure enpresaren diru iturri garrantzitsu bat eskumuturrekoaren salmentengatik lortutakoa da. Eskumuturreko bakoitzaren balioa 299,99 €-koa izango da. Bezeroek ordaintzeko bi aukera izango dituzte: kreditu-txartelarekin edota diru fisikoarekin.

Bestetik, bezeroari ordainketa modu xumea, hau da, guztia batean ordaintzea, edo epekako ordainketa egiteko aukera emango zaio. Epekako ordainketei dagokionez, familien egoeraren arabera baldintzatzen dira ezaugarriak.

Bestalde, gure enpresa aurrera atera dadin, beste diru iturri batzuk behar ditu:

- Bazkideen ekarpenak. Gutako bakoitzak enpresa martxan jartzeko diru kantitate bat jarriko du.
- Osasun Publikoaren diru laguntzak.
- Publizitatea egitearen truke jasoko den dirua.
- Berrikuntza, auto enplegua eta originaltasuna baloratzen duten enpresen lehiaketetan parte-hartzea.
- Bankuari eskatutako mailegua, finantza egoeraren menpekoa dena.

Salmentak

Modeloa	Prezioa	Saldutako kantitatea	Guztira
Modelo estandarra	299,99 €	10 unitate	2999,9 €
Modelo pertsonalizatua	449,99 €	5 unitate	1.249,95 €

Diru-laguntzak

Zeintzuk	Jasotako kantitatea	Guztira
Osasun Publikoak	500 €	1.100 €
Zaindaritza	200 €	
Lehiaketa	400 €	

Mailegua

Zeintzuk	Jasotako kantitatea
BBVA	2.500 €
Guztira	7.849,85 €